

SEBER ALTUBE IKASTOLAKO PARTE HARTZE GUNEAK



PARTE HARTZE GUNEAK

Asanblada

Junta

Guraso Ordezkariek

Ikasleen Batzordea

Bizipoza

Seberbaz

Auzolana

Jantokia

Kirolak

Seber Altube Ikastolan argi dugu, haurak erdigunean jarriko dituen euskal hezkuntza eredu propiorantza ekiten jarraitzeko, etengabeko mugimenduan egon behar dugu eta bidea batera egitea beharrezkoa da. Horregatik, egunerokoan auzolanaren eta parte-hartzearen garrantzia azpimarratzen dugu, batzorde, lantalde eta ordezkariez gain, bideratu nahi diren proiektu eta ideia guztietarako espazioak sortuz.



Seber Altube Ikastola mugimendu etengabea dago, komunitate konprometitu bati esker. Hauxe dugu horren erakusgarri: parte hartze esparru anitz eta biziak.

Gainera, parte hartzeko era guztiak dira ondo etorriak: batzarretara etortzea, auzolanetara animatzea, jaialdietan laguntzea, lantaldeen parte izatea, ordezkaria edo juntakidea izatea... Ekarpen guztiak dira garrantzitsuak, guzti horiekin osatzen dugulako gure proiektu bizi eta anitza.

Ikastola zeozer bada auzolana da.
Seber Altube GU gara eta, izango bada,
guri esker izango da.

ASANBLADA OROKORRA



- Asanblada ikastolako erabakigune nagusia da. Bertan, etorkizunari lotutako erabaki estrategikoak hartzen dira, pedagogikoak eta ekonomikoak ere.
- Seber Altubeko kooperatibista guztiak parte hartzera deituta daude.
- Ikasturtearen amaieran egin ohi da baina beharren arabera ezohiko batzar orokorra deitu daiteke.
- Deialdia garaiz zabaltzen da komunitatea osatzen duten kooperatibistetara, parte-hartzea sustatzeko helburuarekin.
- Gai-zerrenda juntak proposatzen du eta deialdiarekin komunikatzen da. Gairen bat jorratu nahi izanez gero, proposamena juntara bideratu daiteke edota galdera eta erreguetan beti egongo da aukera edozein kooperatibistak nahi duen gaia ateratzeko.

ARTEZKARITZA KONTSEILUA - JUNTA



- Junta gurasoek kooperatibistek osatzen dute eta edozein kooperatibista izan daiteke juntakide.
- Juntakideak 2 urterako aukeratzen dira. Epea igarota, asanbladak onartzen du juntakide aldaketa eta hautagai berria.
- Hautagaiek eurek nahi izanagatik aurkeztu daitezke edo ikastolan duen jarduera edo perfilagatik proposatuak izan. Juntakide hautatzeko, hautagaiak nahi izatea eta asanbladak onartzea beharrezkoa izango da.
- Egunerokoan hartu beharreko erabakiak hartzen dituzte, beti asanbladak adostutakoan oinarrituz.
- Ikastolen Elkartean (EHI), Udaletxean eta bestelako erakundeetan gure kooperatiba ordezkatzeko dute.
- Bilerak 3 astero burutzen dituzte.

GURASO ORDEZKARIAK



- Gela bakoitzean ardura hartzen duten kooperatibistak dira Guraso Ordezkariek (GO). Ikastola eta gurasoen arteko bitartekariak.
- Auzolan Planaren eta Familia Eskolen kudeaketa eta jarraipenaren arduradunak.
- Gurasoen ekarpenak jasotzeko arduradunak.



IKASLEEN BATZORDEA



- DBHko ikasgela bakoitzeko Ikasleen Ordezkariek, Ikasle eragileetako ordezkariak, Zuzendaria, juntakide bik (bat GOen arduraduna) eta DBHko irakasle bik osatutako batzordea.
- Ikasleen proposamenak landu eta bideratzeko gunea. Ahots propioa dutela bermatzeko organoa.
- Ikasleen ordezkariak ikasturte hasieran aukeratuko dira gelaz gela ikasleen bozketa bidez. Ordezkariek izango dira ikasleen eta ikastolaren arteko bitartekariak.
- Euren proposamenak juntara, zuzendaritzara edota ikastolako asanbladara bideratuko dira kasuan kasu.



BIZIPOZA LANTALDEA



- Lantalde honen helburua ikasturteari kolorea ematea izango da. Komunitatean bizipoza eragiten duten ekimenak sustatzeko jaio da eta herrian ere jarduerak antolatzeko.
- Ikastolako Jaialdia, urrikoko txosna, Ene kantak Jai Alaien, Ikasle ohien bazkaria, ekintza kulturalak... Hartu dute erritmoa!



SEBERBAZ EUSKARA LANTALDEA



- Euskaraz bizi nahi dugu. Ikastolan ezezik, etxean, herrian, kirol jardueretan edota aisian; eta bide horretan atzera egin gabe erne ekiteko helburua du Seberbaz Euskara Taldeak.
- Iaz sortu zuten taldea ikasle, irakasle eta guraso batzuek; hizkuntza ohiturak zaintzeko eta euskararen erabilera indartzeko.
- Auton Seberbametrotaren bidez, euskararen erabilera neurtu dute emaitza oso onekin eta poltsa ederrak atera dituzte euskararen aldeko mezuekin.
- Laster Euskaraldian ere topera murgilduko dira.



AUZOLAN LANTALDEA



- Auzolan lantaldeak bi helburu argi izango ditu: auzolan egunak antolatzea eta dauden konponketa txikiei aurre egin ahal izatea.
- Ikasturte honetan, Auzolan eguna antolatu dugu: jantokiaren margoketa. Horrez gain, ikastolako ariketako podak egin dira eta konponketa txiki batzuk.
- Hurrengo ikasturteko erronketako bat aditu eta profesionalen sare bat osatzea da.



- Seber Altube Ikastolako
GALDETEGIAK
- IKASTOLA HOBETZEKO, DENONA DENON ARTEAN.
- JANTOKIARI
BURUZKO IRITZIA**
(Opinión sobre el
comedor)

[illegible]

Seber Altube
Infogunera

INFOGUNERA

JANTOKIARI BURUZKO INFOGUNERA

Jantokikito inkestako emaitzak jakin nahi dituzu? Proposamenak dituzu? Menuen inguruko kezka duzu? Jantokiari buruz berba egin nahi duzu? ZATOAZ INFOGUNERA!!!

SEBER ALTUBE IKASTOLA	OTSAILAK 5 ASTEAZKENA	16:30
--------------------------	--------------------------	-------

KIROLA LANTALDEA



- Kirol lantaldeko ardura nagusia ikastolako kirol proiektua indartu eta hobetzea da.
- Gure ikastolan ohitura osasuntsuak sustatzeko kirol anitzen ezagutza bermatzeaz gain, aisialdian euskaraz eta naturaz gozatzeko ekimen irekiak antolatzen dituzte.
- Guzuko kirol eskaintzaren eta kanpusaren kudeaketa euren gain hartzen dute. Kirola egiteko espazio faltari erantzuna eman eta kirol eskaintzaren komunikazio egokia bermatuz..
- Monitore sarearen antolaketa, kudeaketa, jarraipena eta balorazioa egiten dute, gazteekin formakuntza sustatuz...
- Herriko beste entitateekin elkarlana bilatzen dute, kirola oinarri.

PARTE HARTZE GUNEETAKO KIDEAK

Osotara 90 kidezik gora gaude era
egonkorrean parte hartzen esparru
desberdinetan:

- Juntakideak 12 kide
- Guraso Ordezkariek 20 kide
- Ikasleen Batzordea 14 kide
- Bizipoza 9 kide
- Seberbaz 10 kide
- Auzolana 7 kide
- Jantokia 9 kide
- Kirolak 12 kide



**Eskerrik asko eta zorionak
ikastolan egunerokoan lanean
zabiltzatenoi eta zuen aletxoa
jartzen duzuen guztioi!**

**Aupa zuek!
Aupa gu!**

GU IKASTOLA!

PARTE HARTU NAHI DUZU?

Ikastolako erabakigune guztiak
irekiak dira eta edonork parte
hartzeko aukera du.

Parte hartu nahi izanez gero,
izanez gero, idatzi emailera.



komunikazioa@seberaltube.net



SeberAltube

IKASTOLA